• Entre 20 y 49: 5 puntos

• Menos de 20: 0 puntos

Fundazioei gagozkiela:

Patronatuko kide kopurua. gehienez, 20 puntu. Balioetsi egingo da erakundeak kide kopuru nabarmena izatea.

• 10 baino gehiago 20 puntu
• 4 eta 10 bitartean 10 puntu
• 3 baino gutxiago 0 puntu

c) Erakunde sustatzailearen beraren baliabideak edo beste erakunde batzuen bidez sor ditzakeenak ekitaldi honetan. gehienez, 30 puntu.

• Gutxienez ehuneko 50 bertako edo erakundeak berak sortutako baliabideak dira: 30 puntu
• Ehuneko 30 eta 49 bitartean bertako edo erakundeak berak sortutako baliabideak dira: 15 puntu
• Ehuneko 10 eta 29 bitartean bertako edo erakundeak berak sortutako baliabideak dira: 5 puntu
• Ehuneko 10 baino gutxiago: 0 puntu

Diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontua –hamaikagarren oinarrian aipatutako finantzaketa ehunekoak aplikatzeko oinarri hartuko dena– kalkulatzeko, ondoko eskala ezartzen da:

• 51 puntu baino gutxiago: ezin daiteke diruz lagundu
• 51 eta 59 puntu bitartean: lanaldiaren laurdena (modulu ereduak kontuan izango dira, deialdia ebatzi aurretik balorazio batzordeak aktan onartuko dituenak)
• 60 eta 74 puntu bitartean: lanaldiaren herena (ibidem)
• 75 eta 90 puntu bitartean: lanaldi erdia (ibidem)

**Hamaikagarrena.- Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Zortzigarren oinarriaren irizpideak aplikatuta lortzen diren puntu guztiak batuz gero, lortuko den kopuruari dirulaguntzetarako gehieneko ehunekoa lotuko zaio, ondoko taula honen arabera:

| PUNTU KOPURUA | DIRULAGUNTZAREN GEHIENEKOA |
|---|---|
| 50 puntu edo gutxiago | Ehuneko 0 |
| 51 eta 55 puntu bitartean | ehuneko 50 |
| 56 eta 60 puntu bitartean | ehuneko 60 |
| 61 eta 65 puntu bitartean | ehuneko 65 |
| 66 eta 70 puntu bitartean | Ehuneko 70 |
| 71 eta 75 puntu bitartean | ehuneko 75 |
| 76 eta 80 puntu bitartean | Ehuneko 80 |
| 81 eta 85 puntu bitartean | ehuneko 85 |
| 86 eta 90 puntu bitartean | Ehuneko 90 |
| 91 eta 95 puntu bitartean | ehuneko 95 |
| 95 puntu baino gehiago | ehuneko 100 |

Hamargarren oinarria aplikatu eta gero diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontuak lortuko direnez, aurrekontu horietan aplikatutako ehuneko horiek zehaztuko dute dirulaguntza zenbat izango den.

Eskaera kopurua, deialdiaren aurrekontua eta lehen aldian eman beharreko dirulaguntzak direla-eta dirulaguntzetarako ezarritako kopuruak gutxitu beharko balira, aurreko eskalan adierazitako ehuneko guztiak zenbateko berean gutxituko lirateke.

Gutxitze hori bigarren aldian egin beharko balitz, murrizketa hori diruz lagundu daitekeen azken kontzepturako egon diren proposamenetan diruz lagunduko diren zenbatekoei aplikatuko litzaieke, oinarrietan ezarritako lehentasun hurrenkeraren arabera, aurreko eskalan adierazitako ehuneko guztiak zenbateko berean gutxituta.

Laguntzen eraginkortasuna bermatzeko, dirulaguntza jaso dezakeen jarduera bakoitzaren zenbatekoa gutxienez 250 euro izan behar da, hain zuzen ere, dirulaguntza jaso ahal izateko.

**Hamabigarrena.- Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena**

12.1. Epe barruan eta dagokion eran aurkeztutako eskaerei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du eskaera horiek laguntza jasotzeko eskatzen diren betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, eskaera aurkeztu duenak hamar egun izango ditu eskas diren datuak eta agiriak aurkezteko.

En el caso de Fundaciones:

Número de miembros del Patronato. Hasta 20 puntos. Se valorará que la entidad cuente con un número relevante de componentes.

• Más de 10 20 puntos
• Entre 4 y hasta 10 10 puntos
• Menos de 3 0 puntos

c) Recursos propios o los que a través de otras entidades la entidad promotora pueda generar en el presente ejercicio. Hasta 30 puntos

• Como mínimo el 50 por ciento de los recursos son propios o generados por la propia entidad: 30 puntos
• Entre el 30 y el 49 por ciento de los recursos son propios o generados por la propia entidad: 15 puntos
• Entre el 10 y el 29 por ciento de los recursos son propios o generados por la propia entidad: 5 puntos
• Menos del 10 por ciento: 0 puntos

Para calcular el Presupuesto Máximo Subvencionable, sobre el que se aplicarán los porcentajes de financiación señalados en la Base undécima, se establece la siguiente escala:

• Menos de 51 puntos: no subvencionable
• Entre 51 y 59 puntos: un cuarto de jornada (Se tendrá en cuenta los módulos tipo que serán aprobados en acta por la comisión de valoración, previo a la Resolución de la Convocatoria)
• Entre 60 y 74 puntos: un tercio de jornada (ibidem)
• Entre 75 y 90 puntos: media jornada (ibidem)

**Undécima.- Cuantía de la subvención**

La suma de puntos obtenida de la aplicación de los criterios de la base octava, arrojará una cantidad de puntos a la que se asociará un porcentaje máximo de subvención, de acuerdo al cuadro siguiente:

| NÚMERO DE PUNTOS | MÁXIMO DE SUBVENCIÓN |
|---|---|
| Hasta 50 puntos | 0 por ciento |
| Entre 51 y 55 puntos | 50 por ciento |
| Entre 56 y 60 puntos | 60 por ciento |
| Entre 61 y 65 puntos | 65 por ciento |
| Entre 66 y 70 puntos | 70 por ciento |
| Entre 71 y 75 puntos | 75 por ciento |
| Entre 76 y 80 puntos | 80 por ciento |
| Entre 81 y 85 puntos | 85 por ciento |
| Entre 86 y 90 puntos | 90 por ciento |
| Entre 91 y 95 puntos | 95 por ciento |
| Más de 95 puntos | 100 por ciento |

Dichos porcentajes aplicados sobre los presupuestos máximos subvencionables surgidos de la aplicación de la base décima, determinarán la cuantía final de la subvención.

Si en razón del número de solicitudes, el presupuesto de la convocatoria y los importes a percibir en primera instancia fuera necesario minorar las cuantías de subvención fijadas, se procederá a minorar todos los porcentajes establecidos en la escala anteriormente descrita, en la misma cuantía.

La reducción, en el caso de tener que establecerse en segunda instancia, se aplicará sobre las cuantías a subvencionar en las propuestas habidas para el último concepto subvencionable, según el orden de preferencia establecido en las Bases, y se realizará minorando todos los porcentajes establecidos en la escala anteriormente descrita, en la misma cuantía.

Al objeto de garantizar la eficacia de las ayudas, se fija un importe mínimo de 250 euros por actuación subvencionable, para que éstas sean acreedoras de subvención.

**Duodécima.- Instrucción y Resolución de la convocatoria**

12.1. El Instituto Foral de Bienestar Social comprobará, respecto de las solicitudes formuladas en tiempo y forma, si cumplen todos y cada uno de los requisitos y condiciones exigidas para el otorgamiento de las ayudas, requiriendo, en caso contrario, a quien haya solicitado la subvención para que en el plazo de diez días naturales

Eskas edo eskatzen diren agiriak aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko du (eta horretarako ebazpena emango da aldez aurretik), 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak –4/1999 Legeak emandako idazkeran–, 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak txostenak eska diezazkieke egoki deritzen erakundeei, eskatutako dirulaguntzei buruz zein eskaera egin duen erakundeari buruz; orobat, eskaera egin duen erakundeari espedientea osatzeko eta emandako datuak egiaztatzeko beharrezko izan litezkeen datuak, agiriak edo argibideak ere eska diezazkioke.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoa da prozedura agindu eta bideratzeko eskumena duen organoa eta hark txosten teknikoa egingo du, eta bertan dirulaguntzaren xede diren jarduerak zenbateraino egokitzen zaizkien deialdiaren helburuei jasoko du.

12.2. Zuzendariordetza Teknikoak, Arloko Programen koordinatzaileak eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eskaerak balioesteko batzordea osatuko dute.

Arloko teknikari adituek egindako txostenak aztertu ondoren, eta behin kreditu erabilgarria zein den kontuan hartu eta gero, aipatutako batzordeak ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek dirulaguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jaso beharko ditu, baita ukatzeko proposatzen diren eskaerak eta horretarako arrazoiak ere.

12.3. Ebazpenak behar bezala arrazoituta egon beharko du, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak emango du, erabaki bidez. Horretarako, hiru hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Aintzat hartutako kontzeptu bakoitzeko gehienez emango den dirulaguntza zenbatekoa den zehaztuko du ebazpenak. Eskatzaileei ebazpenaren berri emango zaie, horren aurka aurkez ditzaketen errekurtsoak adieraziz.

Epea igarota, esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntzari ezezkoa eman zaiola esan nahiko du, HAJ-APEren Legeak –4/1999 Legeak emandako idazkeran– 44.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, legez eman egin behar da ebazpena.

12.4. Deialdi honetako laguntzak jasotzeko ezarri diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar, berez eta besterik gabe, laguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi honen babespean dirulaguntza eman izanak ez du behartzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko programei nahitaez dirulaguntzak ematera.

12.5. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epearen barruan, ebazpena eman zuen organoari berari, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen idazkeran), Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Era berean, eta bai zuzenean eta bai, hala badagokio, berraztertzeko errekurtsoa esanbidez ebatzi ostean edo ustezko ezespena gertatu ostean, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioekiko auzietarako epaitegi nagusietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 9.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpena egin denetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**Hamahirugarrena.- Ordaintzeko era**

• Emandako dirulaguntzaren ehuneko 50 aldeko ebazpena eman ondorengo hogeita hamar egunetan ordainduko da.

aporte los datos y documentación precisa con apercibimiento de que, si así no lo hiciere, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por Ley 4/1999.

Lo dispuesto en el párrafo anterior se entiende sin perjuicio del derecho que corresponde al Instituto Foral de Bienestar Social a solicitar informes de los Organismos que considere oportunos respecto de las ayudas solicitadas y la entidad peticionaria, así como a reclamar de esta última los datos, documentos o aclaraciones que se estimen precisos para completar el expediente y comprobar los datos especificados por la entidad peticionaria.

El órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento es la Subdirección Técnica del Área de Intervención Social del Instituto Foral de Bienestar Social, la cual recabará un informe técnico sobre la adecuación a los objetivos de la convocatoria de las actuaciones para las que se solicita la ayuda.

12.2. La Subdirección Técnica junto a la Coordinadora de Programas Sectoriales y a la Dirección de Servicios Sociales se constituyen en comisión de valoración de las solicitudes.

Una vez sean estudiados los informes realizados por el personal técnico especializado del Área y se tenga en cuenta el crédito disponible, la comisión formulará la oportuna propuesta de resolución. Dicha propuesta deberá expresar la relación de entidades solicitantes para las que se propone la concesión de una subvención y su cuantía, así como aquellas para las que se propone denegación y sus motivos.

12.3. La resolución, que deberá estar suficientemente motivada, se dictará mediante Acuerdo por el Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, en el plazo máximo de tres meses, contados a partir de la fecha de terminación del plazo de presentación de solicitudes, contendrá las cuantías máximas a subvencionar en cada uno de los conceptos que hayan sido estimados y será notificada a las personas solicitantes especificando los recursos que puedan interponerse contra la misma.

Transcurrido el plazo máximo para resolver, sin que haya recaído resolución expresa, se entenderá que es desestimatoria de la concesión de subvención, de acuerdo con lo previsto en el artículo 44.1 de la LRJ-PAC, en su redacción dada por la Ley 4/1999, sin que ello exima de la obligación legal de resolver.

12.4. El cumplimiento de todos los requisitos mencionados para las ayudas previstas en esta convocatoria no otorga, por sí sólo, derecho a la adjudicación de las mismas.

La concesión de una subvención al amparo de la presente convocatoria no comporta obligación alguna por parte del Instituto Foral de Bienestar Social de adjudicar subvenciones en los siguientes ejercicios económicos para programas similares.

12.5 La resolución, que pondrá fin a la vía administrativa, podrá ser recurrida potestativamente ante el mismo órgano que la dictó en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

Asimismo, bien directamente o, en su caso, una vez que se haya resuelto expresamente o producida la desestimación presunta del recurso de reposición, contra la misma podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo conforme a lo previsto en el artículo 9.c) de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación.

**Decimotercera.- Forma de pago**

• El 50 por ciento del importe concedido se abonará dentro de los treinta días siguientes a la fecha de la resolución estimatoria.

Laguntzaren zenbatekoa 20.000 eurotik gorakoa bada, eta aurrerakina ehuneko 10 baino gehiagokoa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Idazkaritza Teknikoaren aldeko txostena beharko da.

• 2014ko uztailean ordainduko da emandako dirulaguntzaren ehuneko 20.

• 2014ko irailean ordainduko da emandako dirulaguntzaren ehuneko 20.

• Geratzen den ehuneko 10a, berriz, aurkeztu beharreko justifikazio eta likidazioak aurkeztu ondoren ordainduko da.

**Hamalaugarrena.- Gastuak justifikatzea**

14.1. Dirulaguntzaren bat jasotzen duten erakundeek 2015eko urtarrilaren 15erako aurkeztuko beharko dituzte gastuen ordainagirien eta likidazioen 2014ko abenduaren 31ra arteko fakturak.

14.2. Diruz lagundutako kontzeptuen gastu eta sarreren egiaztagiriak, ondorengo hauek izango dira, gutxienez:

• Aurtengo jardueren memoria-laburpena.

• 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko mantentze gastuen eta diru sarreren egoeraren ziurtagiria, eta diruz lagundutako ekitaldiaren gastuen eta diru sarreren liburu nagusiaren edo erregistro liburuaren fotokopia.

• Diruz lagundutako kontzeptuen jatorrizko fakturak, ebazpenean adierazitako zenbatekoa behintzat zuritzen dutenak. Aitzitik, 300,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da, enpresa hornitzailearen zigilua eta data jarrita dauzkan hartu-agiri, bankuko kopia edo fakturaren bidez.

• Urriaren 29ko 7/2012 Legeak, iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak (BOE, 2012ko urriaren 30ekoa), 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, zenbateko hori 2.500 euro edo gehiago bada, ordainketa bankuan dirua sartuz edo banku transferentzia bidez egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Lehenago adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, batu egingo dira hirugarren berarentzat egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Langileak diruz lagunduak izan badira, honako hauek aurkeztuko dira:

1. Langile zerrendaren ziurtagiria, arauz sinatua.
2. 2014ko azaroko edo lan egindako azken hileko lansari agiriaren fotokopia.
3. 2014ko azaroko (edo ekitaldi horretan lan egindako azken hileko) TC1 eta TC2 likidazioen fotokopia konpultsatuak, bankuak zigilatuta.
4. Arabako Foru Aldundiari aurkeztutako PFEZaren likidazioaren jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak, alegia, azken laburpenarenak (190 eredua), soldatapeko langileen zerrenda duela. (Agiri hori 2015eko otsailaren 15a baino lehen aurkeztuko da)
5. Beste giza gastu batzuen jatorrizko ziurtagiriak, halakorik balego.

14.3. Gastuak justifikatzeko ez da onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituen ordainagiri edo fakturarik:

- Jaulkitzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANa edo IFZ.
- Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANa edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zk.

Era berean, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia eta, batez ere, PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko xedapenak betetzen ez dituzten fakturak eta ordainagiriak.

Cuando el importe de la ayuda a conceder sea superior a 20.000 euros y se anticipe más del 10 por ciento deberá contar con Informe Favorable de la Secretaría Técnica de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

• El 20 por ciento del importe concedido se abonará durante el mes de julio de 2014

• El 20 por ciento del importe concedido se abonará durante el mes de septiembre de 2014

• El 10 por ciento restante se abonará tras la presentación de las justificaciones y liquidaciones correspondientes.

**Decimocuarta.- Justificaciones de los gastos**

14.1. Las entidades perceptoras de ayudas están obligadas a presentar los justificantes de gasto y la liquidación con fecha límite de las facturas el 31 de diciembre del 2014 y la fecha límite para su presentación el 15 de enero de 2015

14.2. La justificación de los gastos e ingresos de cada uno de los conceptos subvencionados incluirán como mínimo la siguiente documentación:

• Memoria - resumen de las actividades correspondientes al ejercicio en curso.

• Certificado del estado de situación de los gastos e ingresos para mantenimiento desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2014 y fotocopia del libro mayor o libro de registro de gastos e ingresos del ejercicio subvencionado.

• Facturas originales de los conceptos subvencionados hasta alcanzar al menos la cuantía indicada en la resolución. En los supuestos de facturas de gasto superiores a 300,00 euros, se deberá acreditar que se ha efectuado el pago de la/s misma/s mediante recibí, copia bancaria o factura con firma y sello de la empresa proveedora.

• De acuerdo a la Ley 7/2012, de 29 de octubre, de lucha contra el fraude, artículo 7, publicada en el BOE de 30 de octubre de 2012, cuando el importe sea igual o superior a 2500 euros, deberá aportarse justificante de haber realizado el pago mediante ingreso o trasferencia bancaria. A efecto del cálculo de la cuantía señalada anteriormente, se sumarán los importes de todas las operaciones o pagos, a favor del mismo tercero, en que se haya podido fraccionar la entrega de bienes o prestación de servicios.

En caso de que el personal haya sido subvencionado, presentarán:

1. Certificado del listado del personal debidamente firmado.
2. Fotocopias de los recibos de nómina correspondientes al mes de noviembre de 2014 o último mes trabajado.
3. Fotocopias compulsadas de las liquidaciones TC1 y TC2, sellados por la entidad bancaria, relativas a la cotización del personal y correspondientes al mes de noviembre de 2014 (o último mes trabajado en dicho ejercicio).
4. Originales o fotocopias compulsadas de la liquidación de IRPF presentada a Diputación Foral de Álava, Resumen Final (Mod.190) que incluya la relación de personal asalariado de la entidad. (Este documento se presentará antes del 15 de febrero de 2015)
5. Originales de justificantes de otros gastos sociales, si los hubiere.

14.3. No se admitirán como justificación de los gastos, aquellas facturas y/o recibos, en los que no estén claramente identificados los siguientes datos:

- Emisor/a, con su nombre o razón social y DNI. o NIF.
- Receptor/a, con su nombre o razón social y DNI. o NIF.
- Objeto del gasto.
- Fecha.
- Nº de factura.

Así mismo, no se admitirán como gastos justificativos, aquéllas facturas o recibos que no cumplan con la Normativa Fiscal, y especialmente, en materia de retenciones a cuenta del IRPF (Impuesto sobre la renta de las personas físicas).

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak jatorrizko fakturekin batera aurkezten diren fotokopiak konpultsatu ahal izango ditu. Horiek konpultsatu eta gero, aurkeztutako jatorrizko frogagiriak zigilu batez markatuko dira; zigiluan agertuko da zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren eta frogagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo zati bati egozten zaion. Azken kasu horretan, dirulaguntzari dagokion zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

14.4. Justifikatutako zenbatekoa ebazpenean adierazitakoaren arabera frogatu beharreko zenbatekoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza murriztu egingo da egindako gasturik txikienaren proportzio berean. Murrizketa horretarako ez dago beste ebazpenik eman beharrik.

14.5. Justifikatzeko epea amaituta, erakunde onuradunak agiri guztiak aurkeztu ez baditu, 10 egun gehiago emango zaizkio horiek aurkez ditzan. Adierazitako epea igaro eta agiri horiek aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari emango zaio hasiera.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako dirulaguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du, egoki iritzten dion moduan, eta diruz lagundutako zerbitzu edo jardueren ezaugarriak, eraginkortasuna eta kalitatea neurtu ahal izango ditu.

**Hamabosgarrena.- Erakunde onuradunen betebeharrak.**

15.1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek betebehar hauek dituzte, deialdi honetan, eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan, eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei aplikagarri zaien araudian jasotakoez gain:

Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartu zen jarduera egitea.

Dirulaguntza eman duen erakundeari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari, jarduera horiek egin direla egiaztatzea, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntza jasotzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla ere.

Dirulaguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariorako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian eta beste erakunde eskudunen legerian xedatutako bestelako jarduerak ere.

Edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk, Espainiakoak nahiz nazioartekoak, xede berarekin emandako dirulaguntzen edo laguntzen berri ematea idatziz erakunde emaileari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari. Orobat, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, horren berri emango dio.

Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ematea.

Diruz lagundutako jarduerak hedatu, kaleratu edo argitaratzen direnean, berariaz adierazi beharko da jarduera horiek Arabako Foru Aldundiaren babesarekin egin direla. Argitalpen horiek bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar da agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa, betetzeko. Aipatutako legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da aniztasuna sexuetan, roletan eta genero identitateetan.

El Instituto Foral de Bienestar Social, podrá compulsar las fotocopias de las facturas que se entreguen junto a los originales. Una vez realizada la compulsa, los justificantes originales presentados se marcarán, con una estampilla, indicando en la misma la subvención para cuya justificación han sido presentados y si el importe del justificante se imputa total o parcialmente a la subvención. En éste último caso, se indicará además la cuantía exacta que resulte afectada por la subvención.

14.4. En caso de que la cuantía justificada no alcance la cantidad indicada a justificar en la resolución, se minorará en igual proporción al menor gasto ejecutado, sin necesidad de dictar nueva resolución al efecto.

14.5. Si, presentada la documentación dentro del plazo referenciado, la entidad beneficiaria no hubiese presentado toda la documentación necesaria, se le requerirá para que la aporte en el plazo de 10 días naturales. Finalizado dicho plazo sin haber presentado la documentación citada, se procederá a la anulación de los créditos de pago, iniciándose el correspondiente expediente para la devolución de aquellas cantidades percibidas en concepto de "entrega a cuenta".

Por el Instituto Foral de Bienestar Social podrá comprobarse, en la forma que en cada caso se estime oportuno, el destino y aplicación de las ayudas concedidas, así como evaluar las características, eficacia y nivel de calidad de los servicios o actividades subvencionadas.

**Decimoquinta. Obligaciones de las entidades beneficiarias**

15.1. Son obligaciones de las entidades beneficiarias de las subvenciones, además de las establecidas en esta convocatoria, y en las Bases Generales reguladoras de la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, del Departamento de Servicios Sociales y su organismo autónomo, Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS) de la Diputación Foral de Álava y la Normativa aplicable a subvenciones y transferencias del Territorio Histórico de Álava, las siguientes:

Realizar la actuación que fundamenta la concesión de la subvención.

Acreditar ante la Entidad concedente o, en su caso, la Entidad colaboradora la realización de las actuaciones así como el cumplimiento y mantenimiento de los requisitos o condiciones que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la Entidad concedente, a las de control económico-financiero y de gestión que se establezcan por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava y a las previstas en la legislación del Tribunal de Cuentas u otros órganos competentes.

Comunicar a la Entidad Concedente o a la Entidad Colaboradora, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o Entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales, así como las alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención.

Facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, el Tribunal Vasco de Cuentas u otros órganos competentes.

Deberán hacer constar expresamente el patrocinio de la Diputación Foral de Álava, en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas. Dichas publicaciones deberán realizarse en ambas lenguas oficiales.

Se garantizará el uso no sexista del lenguaje en la totalidad de los documentos emitidos, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Al amparo de la citada Ley, en las imágenes que pudieran publicarse, no se exhibirá a las personas como inferiores o superiores en dignidad humana en función de su sexo, o como meros objetos sexuales, se evitarán los estereotipos sexistas y se potenciará la diversificación sexual, de roles y de identidades de género.

15.2. Ezarritako betebehar horiek nahiz indarrean dagoen legerian onartutako edozein betebehar ez betetzeak dirulaguntza etetea eta ordura arte jasotako zenbatekoak itzultzea ekarriko du.

15.3 Datu faltsuak eman edo datuak ezkutatuz gero, eta emandako dirulaguntzak emate akordioan jasotako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako erabiliz gero, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauaren 13. artikuluan adierazitako kasuekin aldiberekotasuna gertatuz gero ere, emandako dirulaguntzen ordainketa agindua eten egingo da, eta hala dagokionean, ordaindutako dirulaguntzak itzuli beharko dira. Gainera, arrazoi horiengatik eska daitezkeen erantzukizunak ere bete beharko dira.

**Hamaseigarrena.- Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo horiei atxikitako erakundeetatik jaso ditzaketen dirulaguntzekin. Salbuespen bakarra da bi erakundeek batera esanbidezko baimena eman izana. Hala ere, dirulaguntzaren emakida arautu duten oinarrietan ezarritakoa beteko da.

**Hamazazpigarrena.- Indarraldia**

Deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean. Dena den, diruz lagundutako jarduerak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera jarri ahal izango dira abian.

**Hemezortzigarrena.- Errekurtsoak**

Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio egintza guztiei aurka egin ahal izango zaie, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran), herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako egoera eta eretan.

**Hemeretzigarrena.- Azken klausula.**

Deialdi honetako oinarriak honako hauek ezartzen dutenaren mende egongo dira erabat: lehenik, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrek; bigarrenik, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzienak; eta azkenik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 18a.– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria, MARTA ALAÑA ALONSO.

## GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**1080**

**Elkarte edo fundazioentzako laguntza deialdia, adinekoei zuzendutako programak eta jarduerak garatzen laguntzeko.**

2014ko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2014ko otsailaren 18ko bilkuran, laguntzen deialdi hau onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen deialdia arautuko duten

OINARRIAK

**Lehenengoa. Deialdiaren xedea eta araudi aplikagarria**

Deialdiaren xedea da 2014n zehar, adinekoei zuzendutako programak edota jarduerak garatzen laguntzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak irabazteko xederik gabeko elkarteei edo fundazioei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea.

15.2. El incumplimiento de cualquiera de estas obligaciones previstas, así como de las que establezca la legislación vigente, dará lugar a la extinción de la subvención reconocida, con obligación de reintegrar las cantidades que hubieran sido abonadas hasta la fecha.

15.3. La falsedad u ocultación de datos y la utilización de las subvenciones concedidas para fines distintos de los previstos en el acuerdo de otorgamiento así como la concurrencia en los casos señalados en el articulo 13 de la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava, implicará, sin perjuicio de las responsabilidades que cupiese exigir por tal motivo, la suspensión del libramiento de las subvenciones concedidas y, en su caso, la exigencia de reintegro de las subvenciones abonadas.

**Decimosexta.- Concurrencia y compatibilidad de subvenciones**

Las subvenciones concedidas en esta convocatoria, con independencia de lo establecido al efecto en las bases reguladoras de concesión de las mismas, serán incompatibles con cualquier otra ayuda económica o subvención a que puedan acogerse en éste u otros Departamentos de la propia Diputación Foral u Organismos adscritos a éstos, salvo que expresamente hayan sido autorizadas por las partes de forma conjunta.

**Decimoséptima.- Vigencia**

La presente convocatoria entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA, sin perjuicio de que las actuaciones subvencionables puedan desarrollarse desde el 1 de enero de 2014

**Decimoctava.- Recursos**

La presente convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por Ley 4/1999, de 13 de enero.

**Decimonovena.- Cláusula final.**

Las Bases de la presente convocatoria quedarán condicionadas en su totalidad a lo que establezca las Bases Generales reguladoras de la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, del Departamento de Servicios Sociales y su organismo autónomo, Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS) de la Diputación Foral de Álava, la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Vitoria-Gasteiz a 18 de febrero de 2014.– La presidenta del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, MARTA ALAÑA ALONSO.

## INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**1080**

**Convocatoria de ayudas dirigidas a asociaciones o fundaciones para contribuir al desarrollo de programas y actividades dirigidas a personas mayores.**

Ejercicio 2014

El Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, en sesión celebrada el 18 de febrero de 2014, ha resuelto aprobar y publicar la presente Convocatoria de Ayudas, que se regirá por las siguientes

BASES

**Primera.- Objeto de la Convocatoria y normativa aplicable**

Constituye el objeto de esta Convocatoria regular las ayudas que podrá otorgar el Instituto Foral de Bienestar Social a Asociaciones o Fundaciones sin ánimo de lucro, para contribuir al desarrollo de programas y/o actividades dirigidas a personas mayores, durante el ejercicio 2014.